

# IKASLEAREN ESKULIBURUA

E baimena



# AURKIBIDEA

## 1. GAIA | KONTZEPTUAK 8

<b>KONTZEPTUAK</b>	<b>8</b>
IBILGAILUEN DEFINIZIOAK	8
NAZIOARTEKO KATEGORIAK	15
IBILGAILUAREN MASARI BURUZKO DEFINIZIOAK	16
<b>TESTA</b>	<b>18</b>

## 2. GAIA | DOKUMENTAZIOA 19

<b>GIDARIARI BURUZKO DOKUMENTUAK</b>	<b>19</b>
E MOTAKO GIDABAIMENA	19
PUNTUKAKO BAIMENA	23
GAITASUN PROFESIONALAREN AGIRIA (GPA)	29
<b>IBILGAILUARI BURUZKO DOKUMENTUAK</b>	<b>32</b>
ZIRKULAZIO-BAIMENA	32
AZTERKETA TEKNIKOKO TXARTELA	33
NAHITAEZKO ASEGURUA	35
<b>GARRAIO-BAIMENAK</b>	<b>36</b>
GARRAIO-MOTAK	36
GARRAIO-TXARTELAK	36
<b>TESTA</b>	<b>38</b>

## 3. GAIA | ZIRKULAZIOA ETA SEINALEZTAPENA 41

<b>BIDE PUBLIKOEN ERABILERA</b>	<b>41</b>
ARAU OROKORRA	41
GALTZADAREN ETA BAZTERBIDEAREN ERABILERA	42
ERREI-MOTAK	44
<b>ZIRKULAZIOAREN MURRIZTAPENAK EDO MUGAK</b>	<b>47</b>
NORK EZARTZEN DITU MURRIZKETAK?	48
ZIRKULAZIORAKO BAIMEN BEREZIAK	48
ZIRKULAZIORAKO KALITATE-MAILAK	49
<b>SEGURTASUN-TARTEAK</b>	<b>49</b>
GUTXIENENKO SEGURTASUN-TARTEA	49
ARINTASUNAGATIKO GUTXIENENKO TARTEA	50
TUNELETAKO ETA AZPIKO PASABIDEETAKO SEGURTASUN-TARTEA	50
<b>ABIADURA</b>	<b>51</b>
HERRITIK KANPOKO ABIADURA GENERIKOAK	51
ABIADURA GENERIKOAK HIRI BARRUKO BIDEETAN ETA ZEHARBIDEETAN	51
BESTE ABIADURA BATZUK	52

GUTXIEGIZKO ABIADURA	53
ABIADURA EGOKIA	53
ABIADURA MURRIZTEKO NEURRIAK	53
ABIADURA-MUGAGAILUA	54
<b>BIDE-SEINALEAK</b>	<b>54</b>
<b>TESTA</b>	<b>57</b>

#### **4. GAIA | MANIOBRAK ETA LEHENTASUNA** **59**

<b>MANIOBRAK</b>	<b>59</b>
ZIRKULAZIOAN SARTZEA	59
ALBORANZKO DESPLAZAMENDUA	60
AURRERATZEA	60
NORABIDEA ALDATZEA	64
NORANZKOA ALDATZEA	65
ATZERA-MARTXA	66
IBILGETZEAK	67
<b>PASATZEKO LEHENTASUNA</b>	<b>74</b>
BIDEGURUTZEETAN	74
ESTUGUNEETAN	75
<b>TESTA</b>	<b>79</b>

#### **5. GAIA | ARGIAK ETA SEINALEZTAPENA** **81**

<b>ARGIAK</b>	<b>81</b>
ARAU OROKORRAK	81
<b>IBILGAILUAREN SEINALEZTAPENA</b>	<b>87</b>
IBILGAILUA EDO GIDARIA IDENTIFIKATZEN DUTEN SEINALEAK	88
BIDE-SEGURTASUNA HOBETZEN DUTEN SEINALEAK	88
IBILGAILUAK EMATEN DUEN ZERBITZUA EDO GARRAIO-MOTA ADIERAZTEN DUTEN SEINALEAK	91
<b>MATRIKULA-PLAKAK</b>	<b>92</b>
<b>TESTA</b>	<b>93</b>

#### **6. GAIA | GIZA FAKTOREA ZIRKULAZIO-ISTRIPUETAN** **95**

<b>ZIRKULAZIO-ISTRIPUAK</b>	<b>95</b>
ISTRIPUEN KOSTUAK	95
ISTRIPUEN ZERGATIAK	96
ISTRIPU-MOTAK	96
<b>GIDARIAREKIN LOTUTAKO ARRISKU-FAKTOREAK</b>	<b>98</b>
GIDARIAREN BETEBEHARRAK	99

ERREAKZIO-DENBORA	99
ARRETA-GALTZEAK	100
NEKEA ETA LOGURA	101
ABIADURA	104
GAIXOTASUNAK ETA SENDAGAIAK	106
ALKOHOLA	107
DROGAK	109
<b>TESTA</b>	<b>111</b>

## 7. GAIA | ATOIAK ETA ERDIATOIAK 113

<b>AKOPLAMENDU-GAILUAK</b>	<b>113</b>
<b>FRENATZEKO GAILUAK</b>	<b>114</b>
FRENATZEKO GAILU-MOTAK	115
<b>EZ ENPOTRATZEKO GAILUAK</b>	<b>117</b>
ATZEKO BABESA	117
ALBOKO BABESA	118
<b>PNEUMATIKOAK</b>	<b>119</b>
PUZTE-PRESIOA	119
NOMENKLATURA	120
PNEUMATIKOAK ORDEZTEA	120
BIRGRABATZEA ETA BIRKAUTXUTATZEA	121
EUROPAKO ETIKETAK	121
MANTENTZEA	122
<b>NAHITAEZKO OSAGARRIAK, ORDEZKO PIEZAK ETA ERREMINTAK</b>	<b>122</b>
<b>GEHIENENKO MASAK ETA DIMENTSIOAK</b>	<b>123</b>
GEHIENENKO MASAK	123
GEHIENENKO DIMENTSIOAK	126
BIRAKETA-ERRADIOA	128
GARRAIO BEREZIKO ARAUBIDEKO IBILGAILUENTZAKO	
ZIRKULAZIO-BALDINTZAK	129
<b>TESTA</b>	<b>131</b>

## 8. GAIA | GIDATZEKO TEKNIKAK 133

<b>IBILGAILU-TALDE BAT GIDATZEA</b>	<b>133</b>
GIDATZE-EGOERA BEREZIAK	133
<b>KARGA</b>	<b>136</b>
KARGAREN KOKAPENA	136
KARGAREN NEURRIAK	137
IRTETEN DEN KARGAREN SEINALEZTAPENA	138
ZAMALANAK	139

<b>GIDATZE PREBENTIBOAREN PRINTZIOIOAK</b>	<b>139</b>
INGURUNEAREN BEHAKETA-IKUSPENA	139
AURREA HARTZEA	140
ESPAZIOAREN KUDEAKETA	141
<b>GIDATZE EFIZIENTEA</b>	<b>142</b>
EKOGIDATZEAREN ABANTAILAK ETA ONURAK	142
GAS KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA HAIEN ONDORIOAK	143
<b>MODU EFIZIENTEAN GIDATZEKO JARRAIBIDEAK</b>	<b>143</b>
MOTORRA ABIATZEA ETA MARTXAN HASTEA	143
MARTXA-ALDAKETAK ETA -JAUZIAK	144
ZIRKULAZIOA	144
IBILGAILUAREN INERTZIA ERABILTZEA	145
GERATZE LUZEAK	145
GORANZKO ALDAPETAN GIDATZEA	145
<b>KONTSUMOAN ERAGINA DUTEN BESTE FAKTORE BATZUK</b>	<b>146</b>
<b>TESTA</b>	<b>147</b>

## 9. GAIA | TAKOGRAFOA 149

<b>TAKOGRAFOA</b>	<b>149</b>
TAKOGRAFOA INSTALATUTA ERAMAN BEHAR DUTEN IBILGAILUAK	149
ZEIN DATU ERREGISTRATZEN DITUZTE TAKOGRAFOEK?	151
TAKOGRAFOAK BETE BEHAR DITUEN BALDINTZAK	152
DATUAK GORDETZEKO BETEBEHARRA	153
TAKOGRAFO ANALOGIKO ELEKTRONIKOAREN ERABILERA	153
TAKOGRAFO DIGITALAREN ERABILERA	155
<b>GIDATZE-DENBORAK ETA ATSEDENALDIAK</b>	<b>161</b>
GEHIENENKO GIDATZE-DENBORAK	161
GUTXIENENKO ATSEDENALDIAK	162
<b>ERREPIDEKO IKUSKAPENAK ETA ARAU-HAUSTEAK</b>	<b>165</b>
AGENTEEK AGINDUTAKO IBILGETZEAK	166
TAKOGRAFOAREN ERABILERAREKIN LOTUTAKO ARAU-HAUSTEAK	166
GIDATZE-DENBOREKIN ETA ATSEDENALDIEKIN LOTUTAKO ARAU-HAUSTEAK	170
<b>TESTA</b>	<b>172</b>

## MANIOBRAK



Edozein maniobra egin aurretik, gidariak ASM araua hartu behar du kontuan.

- A** • **Atzeraipilutik** (eta zuzenean) begiratu, maniobra segurtasunez egin daitekeela egiaztatu.
- S** • Maniobra **seinaleztatu**, gainerako erabiltzailei ohartarazteko.
- M** • Maniobra behar bezala egin.

## ZIRKULAZIOAN SARTzea

### • Zirkulazioan sar gaitezke:

- jabetza mugakide batetik (garajetik, etxebizitzatik...)
- bide batean geldituta edo aparkatuta egon ondoren.
- beste bide batera sartzeko bideetatik.
- bide bateko zerbitzuguneetatik.
- bide pribatu batetik.

### • Zirkulazioan sartzen garenean, pasatzen utzi behar dugu.

### • Azelerazio-errei (sarrera-errei) **batetik sartzen bagara**, hau egin behar dugu:

- erreiaren hasieran, arriskurik gabe egin dezakegula ziurtatu,
- geratu, beharrezkoa bada erreiaren hasieran pasatzen uzteko, eta
- ondoren, abiadura handitu, sartzen garen bidearen abiadurara egokitzeko.

### • Ahal den neurrian, **sartu nahi duten ibilgailuei erraztasuna eman behar diegu.**

### • Sartzen ari direnak **autobusak badira**, herri barruan, **behar izanez gero geratu egingo gara.**

**Ibilgailu-talde batzuetan**, bidearen kanpotik sartzek duen alde txarra da **atzerantz ikuspenik ez dagoela**; beraz, gidaria bidean angelu zehatz batean jartzen bada, ez du ezer ikusiko zirkulazioaren noranzkoetako batean.



**Ibilgailu-taldeen gidariak** arreta jarri behar dute zirkulazioan noiz sartu erabakitzeko; izan ere, geroago ez dute azelerazio handia izango, eta oztopo izan daitezke gainerako ibilgailuentzat eta bide-erabiltzaileentzat.

Oso garrantzitsua da bidearekiko perpendikular kokatzea, trakzio-ibilgailuaren leihoetatik zirkulazioaren bi noranzkoak ikusteko.

## ALBORANZKO DESPLAZAMENDUA

Alboranzko desplazamendua honako maniobra hau da:

- ibilgailuak galtzadan duen posizioa nabarmen aldatzen duena, eskuinerantz edo ezkererantz.
- zirkulatzeke erabiltzen ari zen erreiaz bestelako batean (oro har, albokoa) sartzen dena, osorik edo partzialki.

### Alboranzko desplazamenduak arrazoi hauengatik egin daitezke:

- geroago norabidea aldatzeko asmoz, erre bat hautatzeko.
- bigarren ilaran dagoen ibilgailu bat gainditzeko.
- beste ibilgailu bat aurreratzeko, erreiz aldatuz, etab.

Alboranzko desplazamendua aldez aurretik seinaleztatu behar da, dagokion norabide-adierazlearekin (ahal dela), edo:

- ezkerreko besoa posizio horizontalean luzatuta, esku-ahurra beherantz zabalduta (**desplazamendua ezkererantz**).
- ezkerreko besoa gorantz tolestuta, esku-ahurra luzatuta (**desplazamendua eskuinerantz**).



Argi-seinalea maniobra amaitzean itzali egin behar da.

Besoarekin egindako seinalea gainerako erabiltzaileek ikusi dutenean eta maniobra egiten hasi aurretik amaituko da (gidariak bi eskuak bolantean jarri ahal izateko).

Ibilgailu-taldeen gidariek ziurtatu behar dute alboranzko desplazamendua segurtasunez egin dezaketela, inguruan zirkulatzen ari diren ibilgailuen aurrerabide normala aldatu gabe.

Ibilgailu-taldek turismoek baino askoz angelu itsu gehiago dituzte; horregatik, honela egin behar dute alboranzko desplazamendua:

- erabiltzaile bat bera ere arriskuan jarri gabe, okupatu nahi den erreitik zirkulatzen ari diren ibilgailuen lehentasuna errespetatuz.
- pixkanaka eta modu progresiboan.

## AURRERATZEA

Aurreratzeko maniobra zirkulazio-noranzko bakarreko bideetan eta zirkulazio-noranzko biko bideetan egin daiteke. (Azken horietan arriskutsuagoa da).

**Aurreratzeke maniobra:**

- arau orokor gisa, **ezkerretik egin behar da**. (Herri barruan eskuinetik aurreratu daiteke, gutxienez bi errei mugatuta badaude noranzko bererako).
- norabide-adierazleekin **seinaleztatu behar da**, aurreratu beharreko ibilgailua aurreratu baino lehen alboranzko desplazamendu bat egin behar baita, eta aurreratu ondoren beste bat.
- **aurreratutako ibilgailuaren abiadura baino nabarmen handiagoan** egin behar da (ez da erraza izaten ibilgailu-talde bat gidatzean).

**■ AURRERATU NAHI DUEN GIDARIAREN PORTAERA****1**

**Aurreratu baino lehen, egiaztatu behar du:**

- ez datorrela ibilgailurik kontrako noranzkoan.
- aurrean zirkulatzan ari den ibilgailuak ez duela albo berera desplazatzeko asmoa adierazi.
- atzetik zirkulatzan ari den gidari bat ere ez dela gure ibilgailua aurreratzen hasi.
- aurreratu ondoren eskuineko erreira itzultzeko nahikoa leku dagoela.

**2**

**Aurreratu baino lehen, seinale bertikalak eta horizontalak ikusi behar ditu, aurreratzea debekatuta ez dagoela egiaztatzeko.**

**3**

**Seinaleztatu egin behar du maniobra, alboranzko desplazamendua behar bada, ezkerreko keinukariarekin edo, bestela, ezkerreko besoarekin.**

**Herritik kanpo, seinale akustikoekin** (klaxonarekin) **edo argi-seinaleekin** (argi-distirekin) **seinaleztatu behar da aurreratzeke asmoa, eta herri barruan, argi-seinaleekin:**

- aurrean zirkulatzan ari den ibilgailuaren gidariari, ezkerreko erreira desplazatzeko asmoa adierazi duenean eta, zentzuzko denbora baten ondoren, desplazamendua egiten ez duenean.
- trenbide-pasaguneetan eta inguruetan bi gurpileko ibilgailuak aurreratzean, baldin eta, dimentsio txikikoak izatean, alboko ikuspena eragozten ez badute.

**4**

**Bere ibilgailuaren potentzia eta azelerazioa egiaztatu behar ditu. Behar izanez gero, martxak jaistea komeni da, azelerazio-ahalmen handiagoa izateko; batez ere, luzera handiko ibilgailu bat aurreratu behar bada.**

**5**

**Ibilgailu bat baino gehiago aurreratu daitezke, baldin eta gidaria ziur badago aurrez aurre baten bat etorri gero eskuineko erreira itzuli ahal izango duela, aurreratutako ibilgailu bat bera ere arriskuan jarri gabe.**

**!** Zalantzarik izanez gero, **EZ** aurreratu.



## 6

Ibilgailu motordunen gidariak honelako segurtasun-tartea utzi behar dute alboan:

- abiaduraren, bidearen zabalaren eta galtzadaren ezaugarrien arabera, beste edozein motordun ibilgailu aurreratzean edo herri barruko bideetan aurreratzean.
- gutxienez 1,5 metrokoa herritik kanpo oinezkoak, bi gurpileko ibilgailuak, animaliek tiratutako ibilgailuak edo animaliak aurreratzean. Segurtasunagatik, herriko bideetan zirkloak eta ziklomotorrak (edo haien taldeak) aurreratzean ere gutxienez 1,5 metroko alboko tarte hori uztea komeni da.

Ziklo edo ziklomotor bat, edo haien talde bat, aurreratzeko asmoa duen ibilgailuaren gidariak ondoko edo kontrako erreirean edo, hala badagokio, galtzadaren zati bat edo osoa okupatu beharko du aurreratzeko. Gutxienez 1,5 metroko segurtasun-zabalera gorde beharko du, salbu eta galtzadak errei bat baino gehiago baditu noranzko bakoitzeko; kasu horretan, guztiz aldatu beharko da erreiz. Debekatuta dago kontrako noranzkoan zirkulatzeko ari diren txirrindulariak arriskuan jarritz edo oztopatuz aurreratzea, baita bazterbidetik zirkulatzeko ari badira ere.

Txirrindulariak arriskuan jarritz edo oztopatuz edo 1,5 metroko gutxienezko tartea utzi gabe aurreratzeak 6 puntu galtzea dakar.

## ■ AURRERATUTAKO IBILGAILUAREN GIDARIAREN PORTAERA

Gidariak, atzetik datorren beste batek aurreratzeko asmoa duela ikusten badu, **galtzadaren eskuineko bazterrean hurbildu behar du**, salbu eta ezkerrean biraketak egiten direnean edo norabidea harantz aldatzen denean edo alde berean gelditzen denean; halakoetan, ahalik eta gehien hurbildu behar du ezkerrean, baina kontrako noranzkoan zirkula dezaketenez ibilgailuen martxa oztopatu gabe.

Debekatuta dago aurreratu izango den ibilgailuaren gidariak abiadura handitzea eta aurreratzea eragozten edo zailtzen duten maniobrak egitea.



Ibilgailu astunen, tamaina handiko ibilgailuen edo abiadura-muga jakin bat errespetatzera behartutako ibilgailuen gidariak, galtzadaren eskuineko ertzera hurbildu ezin badira eta aurreratzea segurtasunez egin badaiteke, honako hauek egin behar dituzte:

- besoa horizontalki zabaldu eta zenbait aldiz atzetik aurrera mugitu, ahurra aurrerantz izanik (edo, bestela, eskuineko keinukaria piztu, seinalea besoarekin egitea egokia iruditzen ez bazaie).
- abiadura moteldu edo ahalik eta azkarren bazterbidera hurbildu (ahal izanez gero), atzetik doazenei bidea uzteko, baldin eta ezin badira erraz eta arriskurik gabe aurreratuak izan kontrako noranzkoko zirkulazioaren dentsitateagatik, galtzadaren zabalera nahikoa ez delako edo errepidearen profilagatik edo egoeragatik.